

JOLAS SOZIALA ETA INPLIKAZIOA

HAUR HEZKUNTZAKO KANPO ESPAZIOAN

Tesiaren egilea: Nekane Miranda Franco

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea

Saila: Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntza Inklusiboan Saila

Tesi-zuzendaria: Iñaki Larrea eta Alexander Muela

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honen abiapuntua izan da ebidentzia enpirikoak eskaintzea Haur Hezkuntzako kanpo-espazioak baliabide pedagogiko gisa haurren garapen osasuntsurako daukan garrantzia aitortzeko.

Zehazki hiru izan dira ikerketa honen helburuak. Lehendabizikoa izan da Haur Hezkuntzako kanpo-espazioen diseinua eta erabilera ezagutzea, eta, horrela, haren kalitate orokorrari lehen hurbilpen bat egitea. Bigarren helburua izan da kanpo-espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzea. Gainera, ikerketetan gehiegi jorratu ez den aldagai bat dela ikusita, ezagutu nahi izan da generoaren arabera ezberdintasunik ote dagoen. Eta azkenik, hirugarren helburua izan da, aurreko helburuetan izandako emaitzetan oinarrituta, Haur Hezkuntzako kanpo-espazioak hobetzeko ekintzak proposatzea, gauzatzea eta emaitzak ebaluatzea.

Diseinuaren eta erabileraren azterketatik abiatuta, ikerketaren lehendabiziko emaitzek agerian utzi zuten aztertutako kanpo-espazioen diseinu gehienak kirolean (futbolean eta saskibaloian, besteak beste) oinarritzen zirela. Erabilerari dagokionez, irakasleei egindako elkarrizketek erakutsi zuten kanpo-espazioan emandako denbora hartzen zela atsedenerako edo mugimendu-beharrari erantzuteko tartetzat. Kalitate orokorrari bagagozkio, emaitzek aditzera eman zuten kalitate ertainekoak zirela. Kanpo-espazioko jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioari dagokionez, espero bezala, emaitzek agerian utzi zuten zenbat eta jolas sozial gehiago, orduan eta inplikazio-maila altuagoa dagoela. Gainera, talde-jolasean gehien aritutako hurrek inplikazio-maila altuagoa erakutsi zuten, bakarkako jolasean eta paraleloan aritu zirenek baino. Jolas sozialaren eta inplikazioaren arteko erlazioa aztertzeaz gain, ikerketa honetan balizko genero-ezberdintasunak ezagutu nahi izan ziren. Espero bezala, ez zen neska eta mutilen arteko ezberdintasunik aurkitu kanpo-espazioko inplikazio-mailan. Edonola ere, talde-jolasaren frekuentzia nesken artean mutilen artean baino txikiagoa izan bazen ere, ikusi da nesken artean zenbat eta talde-jolas maiztasun handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela inplikazioarekiko duen efektu positiboa. Azkenik, zenbait ikastetxetako kanpo-espazioen diseinuetan egindako

berrikuntzek aditzera ematen zuten nabarmen hobetu zirela bertako jolasteko eta ikasteko eszenatokiak eta ikastetxeetako kanpo-espazioetako programa.

Eraitza horiek ardatz hartuta, iradokitzen da kanpo-espazioa Haur Hezkuntzarako goi-mailako baliabide pedagogikotzat hartzeko beharra. Ildo horretatik, aldarrikatzen da haurren jolaserako eta elkarrekintzarako aukera anitzak eskaintzen dituzten testuinguru naturalak sustatzea, modu horretan, neska eta mutilen partaidetza eta iniziatiba ere bultzatzeko. Kanpo-espazioa haurren garapen osasuntsurako baliabide bihurtzeko prozesuan, beharrezkotzat hartzen da Hezkuntza Komunitate osoaren partaidetza.